

3. Elizaren historia Euskal Herrian

Julen Urkiza Txapartegi



3.1. Nor / CV

Julen Urkiza Txapartegi, Simeon eta Mariaren semea, Ondarroan jaio zan 1944ko apirilaren lean, eta egun bat geroago, au da, apirilaren 2an parrokiaren bateatua izan zan. Sendotzako Sakramentua 1952ko otsailaren 11an artu eban.

Batxiller ikasketak Zornotza, Nafarroako Villafranca eta Marquinan egin ebazan. Karmeldar izateko asmoz 1961ko Iñaki Deunaren egunean Larreako (Zornotza) nobizian sartu zan, eta bere profesia 1962ko abuztuaren 8an egin eban.

1963ko irailean Vienara bialdua izan zan beste lagunekin batera. Ango Unibertsitatean filosofia eta teologiako ikasketak egin ebazan. Eta 1972ko ekainaren 23an Teologiako Doktor titulua eskuratu eban.

Diakonotzako Sakramentua 1969ko otsailaren 2an artu eban; eta abadetza Vienako karmeldarren elizan 1969an, Franz Jachym artzapezpiku sakramentu emoile zalarik.

Vienan egindako lanak: eskolan urte bi erlejioa irakasten (1974-1975). Urteetan zear gazteen “Legio Mariae”ko talde batzuen zuzendari (1969-1981). Komentuan (1969-1981): elizako apostulautza; bibliotekario, artxibero; Ordena barruko aldizkariaren sortzaile eta zuzendari (“Karmel in Bewegung”, 1977-1981); eta batez ere historiko ikerketa lanak (1975-1981)...

18 urte Viena'n bizi izan ondoren, 1981ko abenduaren 2an urten eban andik Euskal Herrira, Larrea-Zornotzako komentura joan zan. An egin dau ia amabi urte (1982-1993). Sei urtetan (1982-1987) Etxanoko (Zornotza) parrokiaren ardurea eroan dau. 1984tik *Karmel* aldizkariko zuzendaria da. *Karmel-Sorta* (1989-) eta *Vasconia Sacra* (1995-) liburuen sortzaile eta zuzendaria da. Eta 1993ko udatik Markinako Karmendarren komentuan aurkitzen da, bertako priore-serbitzua bete dau (1993-2002, 2005-2011)...

3.2. Laburpena / Resumen / Summary

a) Elizaren historia Euskal Herrian

Euskal Herriko Kristautzea dela-eta historian zehar eztabaida asko sortu izan da..., eta askotan sentimenduek eta aurreiritziek eraginda.

Benetan estimagarria da azken urteetan (30-40 urteetan) egin den lana. Historiografia honetan ezin dugu ahaztu historialari askok aurretik egin duten lan handia. Bestalde, konturatu beharra dago historialari handi hauek lan mugatuak egin dituztela, hau da, gai mugatuak edo bereziak erabili dituztela, edo elizbarruti bati buruz, edo historia-une bat izan dutela aztergai.

Hitzaldi labur honetan Euskal Herriko Kristautzea bera baino Kristautzeari buruzko ikuspegi bibliografikoak gehiago izango dira gogoan, batez ere azken 40 bat urte hauetakoak; azken urteotan aurrerapena handia egin delako, arkeologiaren bidez batez ere. Eta bada itxaropenik kristautzeari buruz agertuko diren arkeologiako datu berrietan.

Ohiko gaiak hartzen dira kontuan gauzak aztertzerakoan: Erromatarkuntza, Prudentzioren testigantzak eta Kalahorra, Martiriak eta soldaduak, Ustezko Afrikako eragina, Iruñeko eta Baionako gotzainen hasiera dela-eta, haitzuloak eta kristautzea lehen mendeetan, aztarna arkeologiko, epigrafiko, etab. Eta amaieran, gogoeta egingo dugu beraren handitasun eta esanahiagatik kasu berezia agertzen digun Iruña-Veleiaren arlo hain zabalaz.

b) La Historia de la Iglesia en Euskal Herria

Al hilo de la cristianización del País Vasco, ha habido gran polémica a lo largo de la historia..., y muchas veces por aspectos sentimentales y prejuicios.

Es digno de consideración el trabajo realizado en los últimos años (30-40 años). En esta historiografía no podemos olvidar el gran trabajo que han realizado de antemano muchos historiadores. Por otro lado, nos tenemos que dar cuenta que estos grandes historiadores han realizado trabajos delimitados, es decir han utilizado temas acotados o específicos, el objeto de estudio ha sido una diócesis o una época histórica.

En esta breve conferencia, más que la propia cristianización del País Vasco, se tendrán en cuenta aspectos bibliográficos de dicha cristianización, sobre todo de estos últimos 40 años; debido a que estos últimos años se han llevado a cabo grandes avances, sobre todo gracias a la arqueología. Y hay esperanzas sobre los nuevos datos que puedan aparecer sobre la cristianización.

Se tienen en cuenta temas cotidianos al analizarlos: Romanización, testimonios de Prudencio y Calahorra, Mártires y soldados, la posible influencia de África, los comienzos de los obispados de Pamplona y Bayona, las cuevas y la cristianización en los primeros siglos, los restos arqueológicos, epigráficos, etc. Y al final, reflexionaremos sobre el amplísimo apartado que nos ofrece Iruña-Veleia, por su grandeza y significado.

c) The history of Christianity in Euskal Herria

The history of Christianity in Euskal Herria has always been full of controversies and very often driven by feelings and prejudices.

It is interesting the work that has been done in this direction in the last 30 or 40 years. In this historiography, we should not forget the work that other historians have done in the past. It is also worth noting that the work of some of these historians has been very limited, that is, they have only touched specific or unique aspects or they have done the same by investigating from an internal or partial perspective of the Church.

In this brief talk, rather than the Christianization of Euskal Herria, other themes and bibliographical aspects such as what has been done in the last 40 years, which has been an important advance in the archaeological subject, will be touched and will hold in mind. Such advance provides the hope that new messages shall be discovered in the archaeological elements in the next future.

Common themes in research to be mentioned: Romanization, testimonies of Prudencio and Calahorra, martyrs and soldiers, alleged actions in Africa, the first bishops in Pamplona and Bayonne, the catacombs and Christianity of the first centuries, archaeological, epigraphic

samples , etc. And to finish, given the messages that could be divined, it will made an incursion in the subject so suggestive of Iruña-Veleia.

3.3. Txostena / Ponencia / Communication

a) Sarrera

Euskal Herriaren kristautzeari buruz eskatu zidatenean, aspaldian eskutik utzita neukan gai hau, bana berriro eskuratzeko asmotan nengoen. Eta gaurko hitzaldia izan liteke Euskal Herriaren kristautzeari buruz urte batzuetan egiteko daukadan ikerketa-lan luze baten hasiera.

Hitzaldi labur honetan gai honi buruzko egoera historiografikoa azalduko dut, batez ere azken urteetan egin dena azpimarratuz.

b) Euskal Herriaren kristautzea dela-eta. (Eginiko lana. Historialari garrantzitsuenak)

Kristautze hau dela-eta historian zehar hainbat eztabaida sortu izan da... eta askotan ezjakintasunak eta sentimenduek eraginda, aurreiritzi asko tartean direla.

Benetan estimagarria da azken urteotan (30-40 urteotan) egin den lana. Historiografia honetan ezin dugu ahaztu historialari askok aurretik egin duten lan handia. Bestalde, konturatu beharra dago historialari hauek lan mugatuak egin dituztela, hau da, gai mugatuak edo bereziak erabili dituztela, edo elizbarruti bati buruz, edo historia-une bat izan dutela aztergai; beraz, Euskal Herriko Elizaren historiaren lan orokorrik ez dute egin.

Orain historialari handi hauek oroitzuz, aipatu egingo ditugu labur-labur: lehenengo *Victor Pierre Dubarat* (1855-1939): Baionako seme honen historiagintza XIX. mendeko azken aldian eta XX. mendeko aurrengo aldian izugarria izan da: asko ikertu izan du, dokumentu asko eta interesgarriak argitaratu, gai oso desberdinez idatzi du..., baina ia dena Iparraldera mugatuta...¹..

Historialari handien artean badaude beste batzuk ere aipatzea merezi dutenak, adibidez: Jose Goñi Gaztambide (1914-2002), Nafarroako Elizaren gaien aztertzailea, J. Ignacio Telletxea (1928-2008), etab.

Antzinako idazlari batzuk, eta ez Euskal Herrikoak soilik, Euskal Herria zuzenki Apostoluren baten bitartez edota hauen ikasleatarikoren baten bitartez lehenengo mendeetan kristautu zela esateko joerakoak dira. Beraz, oinarri sendorik gabeko iritzi hauek banan-banan hemen aipatzen jardun gabe², XX. mendeko historialarien iritziak jasoko ditugu gehien bat.

Euskal Herriaren kristautzeak ez du ikertzaile askorik izan; historia orokorretan nahiz euskal Elizaren nahiz herrialde desberdinen histori liburuetan, kristautzeari eskainitako orrialde banaka

¹ Iparraldeko elizbarruti eta gotzainei buruz idatzi du, baita liturgia, sinodoak eta estatutuak, santutegiak, monasterio eta komentuak, etab. ere izan ditu aztergai, baita gai hagiografikoak eta biografiakoak ere, elizak eta parrokiak, irakaskuntza, etab...; 250 lan historiko baino gehiago egin ditu, hauetatik 135 bat Elizari buruzko gai historikoak dira. Batez ere lan handi batzuk aipatu behar ditugu, adibidez "Le missel de Bayonne de 1543. Précédé d'une Introduction sur les Antiquités Historiques et Religieuses de l'ancien Diocèse de Bayonne" (Pau 1901), edo "Le Bréviaire de Lescar de 1541" (Pau 1891)... edo sei tomatoko "Melanges de bibliographie et d'histoire locale" (Pau 1894-1904), edo 14 liburuko "Etudes historiques et religieuses du diocèse de Bayonne" (Pau 1892-1903), Haristoy historialariaren laguntzaz egin; etab. Ik. EHEH (J. URKIZA, *Elizaren historia Euskal Herrian. I. Ikerlan materialak*, Markina, 1995) 166-171, 620-622.

² Ik. adibidez, A. CAMPIÓN, *Euskariana (Novena serie). Navarra en su vida histórica*, Pamplona ²1929) 51-78; A. E. MAÑARICUA, *Santa María de Begoña en la historia espiritual de Vizcaya*, Bilbao 1950, 62-64; A. AZKARATE GARAI-OLAUN, *Kristautasunaren sarrera*, in: [BATZUK], *Euskal Herriaren historia*, III, Bilbao, 1987.

batzuk agertzen dira eskuarki eta beste horrenbeste esan daiteke herri eta hirien liburu monografikoez ere.

Bestalde, historialari ospetsuetako batzuek Euskal Herriaren kristautzea atzeratzeko joera agertu izan dute. Esaterako, Z. García Villada historiagile handiak, beharko litzatekeen seriotasun zientifikorik gabe, XI. eta XII. mendeetara arte atzeratzen du Euskal Herriaren kristautzea³; zoritxarrez, beste historialari batzuegan eragina izan du eta askok, gai horretaz diren ikerlan historiografikoak ongi ezagutu gabe, itsumustuan hark emandako iritzia errepikatu baizik ez dute egin. Nahiko ezagunak diren historialari batzuek ere, esaterako: Orlandis-ek 1955ean, Barbero-Vigilek eta Martínez Díaz-ek 1974an, kristautzea atzeratzeko joera agertu dute, baina ez hainbeste⁴.

Orain Euskal Herriaren kristautzeaz gehien saiatu diren historialariak aipatuko ditut.

1) Gaia ongi aztertu gabe esan eta berresan ohi ziren iritzi desberdinen artean, Karmelo Etxegarai benetan saiatu zen euskal herrialdeen kristautzearen auzi hau argitzen eta 1895ean haxe baieztatzen zuen: data ziurrik ematea zail dela, baina kristau-erlijioaren aldarrikapena errekonkistaren aurretikoa dela ziurtzat jo daitekeela⁵.

2) Erdi Aroko Nafarroaren historialari bikaina zen J. M^a Lacarra-k 1956an egindako hitzaldi bat argitaratu zuen 1957an Euskal Herriaren kristautzeari buruz. *La cristianización del País Vasco* du izenburua⁶. Ez dago ongi oinarriturik... Egilea, hitzaldia egin eta gero argitara ematean, ez dut uste gaia sakonki ikertzeko asmoz aritu zenik ere; haren asmoa, dirudienez, dibulgaziozko lan bat egitea izango zen.

Antzinako garaian aditua zen beste historialari batek, Michel Rouchek, bere liburu handian (*L'Aquitaine des Wisigoths aux Arabes, 418-781. Naissance d'une région*, Paris 1979), 505. orrialdean, dio, X. mendean (977an) "Episcopus Wasconiae" idazpuruak Gombaud gotzain misiolaria zela frogatzen duela eta euskaldunak urte haietan ari zirela bataiatzen, kristau egiten. Argudio hau oso ustela dela ikusteko ez dago argia izan beharrik. Argudio hori onartuz gero, garai horretan, X eta XI. mendeetan, Gaztelerrria ez zela kristaua baieztatu beharko genuke eta Aragoa ere ez, eta Katalaunea ere ez, orduantxe ari zirela kristau egiten, garai horretan agertzen baitira "Episcopus Castellae" eta "Episcopus Aragoniae", "Episcopus Catalumniae" idazpuruak ere. Eta hemengo historialariren batek itsumustuan jarraitu zion, behintzat aldi batean... Honekin esan dahi dudana hau da: autorekeria gehiegi izan dela, historialari onen hutsegiteak jarraituz...

Azken 30 urteotan asko gehitu da kristautzeari buruzko interesa; azken aldi honetan aurrekuntza batzuk ikusten ditut, batez ere arkeologia ikuspuntutik begiratuta egin diren aurkikuntzengatik, eta baita arteari buruzko lan asko eta ederrengaitik ere.

³ Z. GARCÍA VILLADA, *Historia eclesiástica de España*, III, (Madrid, 1932???) 270-273. or.

⁴ J. ORLANDIS, *El cristianismo en el reino visigodo* (in: *Settimane Sull'Alto Medioevo*, III, Spoleto, 1956), 154-155; A. BARBERO - M. VIGIL, *Sobre los orígenes sociales de la Reconquista*, Barcelona, 1974 94; G. MARTÍNEZ DÍEZ, *Alava Medieval*, I, Vitoria 1974, 29.

⁵ *Las provincias vascongadas a fines de la Edad Media*, 1. t., San Sebastián 1895, 39-98; ikusi 1904an egindako hitzaldia ere 1905ean argitaratua izan zena: *Introducción del Cristianismo en el País Vasco*, San Sebastián 1905.

⁶ *Vasconia Medieval*, (San Sebastián 1957) 51-70. Tamalgarria da idazlan hau 1971n argitaratua izatea (*Estudios de historia navarra*, Pamplona 1971), orduko une historiografikoari zegokionez, inolako orrazketa eta zuzenketarik gabe.

A. E. Mañarikuaeren aurrekoak, iritzi ugari zabal agertu arren, askotan oinarri gabeak dira, eta euskaldunen kristautzeari buruz ez dute asko argitu; Mañarikua-k, ostera, sakontasunez aztertu dau urteetan argitaratutako artikuluetan⁷, eta haren iritzi batzuk kontuan hartzekoak dira.

J. J. Sayas Abengoetxearen artikulua ugariak interesgarriak dira, eta bide batzuk zabaltzen ari da lehenagoko euskaldunen garai zaharra ulertarazteko⁸. Era berean Koldo Larrañaga Elorza izan da Erromako garaian eta antzinate beranduan egoera politiko eta erlijiosoaz azaltzen saiatu dena⁹. Eta A. Azkarate Garai-Olaun izan da euskaldunen kristautze-gaiaz interesa jarri duen beste bat; lehenengo 1987an *Kristautasunaren sarrera: Eztabaida historiografikoa zertan den* artikulua argitaratu zuen¹⁰, eta 1988an beste liburu interesgarri hau: *Arqueología cristiana de la Antigüedad Tardía en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*¹¹; urte berean beste artikulua bat, Euskal Herriko kristautzeari buruzko azterketaren gaurko egoera azalduz¹², eta beste lan asko¹³.

⁷ *Geografía eclesiástica del País Vasco peninsular (s. III-XI)*, I SEHEPV (1981) 231-235; *Introducción del Cristianismo en el País Vasco*, I SEHEPV (1981) 27-41; *Introducción del cristianismo en el País Vasco*, in: *Euskal Herria. Historia eta gizartea. Historia y sociedad* (zuz: J. Intxausti), [Mondragon] 1985, 332-336; *Cristianización del País Vasco. Orígenes y vías de penetración*, in: *Vizcaya en la Edad Media*, (CEH, San Sebastián, 1986) 39-48. Orain dela gitxiagertudira liburu baten bere kristautzari buruzko artikulok: Andrés E. de MAÑARICÚA Y NUERE, *Estudios acerca de la cristianización del País Vasco*, Bilbao (Labayru Ikastegia) 2013, 399 or.

⁸ Juan Jose SAYAS ABENGOECHA, *Consideraciones históricas sobre Vasconia en época bajoimperial*, in: *La formación de Alava*, [Hitzaldiak], Vitoria-Gasteiz 1984, 481-510; Idem, *El poblamiento romano en el área de los vascones*, *Veleia* 1 (1984) 289-310; Idem, *Algunas consideraciones sobre la cristianización de los vascones*, PV 46 (1985) 35-56; Idem, *La presión cristiana sobre los territorios vascónicos en época Bajoimperial*, in: *Vizcaya en la Edad Media*, (CEH, San Sebastián 1986) 49-61; Idem, *El fenómeno religioso en el pueblo vascón*, in: [BATZUK], *Euskadi historiaren aurrean. Euskadi ante la historia*, Estella 1987, 43-65; Idem, *La propagación del cristianismo entre los vascones*, in: [BATZUK], *Euskadi historiaren aurrean. Euskadi ante la historia*, Estella 1987, 67-78; Idem, *La búsqueda visigoda de la unidad territorial y el caso vascónico*, *Veleia* (1988, 5.zk.) 189-201; Idem, *La religiosidad de los pueblos de ambas vertientes de los Pirineos*, in: José M^a BLAZQUEZ - Jorge MARTÍNEZ-PINNA - Santiago MONTERO - M^a Paz GARCÍA GELABERT - Francisco MARCO SIMÓN - Juan José SAYAS - Guadalupe LÓPEZ MONTEAGUDO - Francisco Díez de Velasco, *Historia de las religiones de la Europa antigua*, Madrid 1994, 401-420; SAYAS ABENGOECHA, Juan Jose, *El territorio aquitano entre la asimilación romana y el mantenimiento de su especificidad*, PV (1992, Anejo-14) 153-180; Idem, *La religiosidad de los pueblos de ambas vertientes de los Pirineos*, in: BLAZQUEZ, José M^a - MARTÍNEZ-PINNA, Jorge - MONTERO, Santiago - GARCÍA-GELABERT, M^a Paz - MARCO SIMÓN, Francisco - SAYAS, Juan José - LÓPEZ MONTEAGUDO, Guadalupe - Díez de Velasco, Francisco, *Historia de las religiones de la Europa antigua*. Madrid 1994, 401-420; Idem, *Los vascos en la Antigüedad*, Madrid 1994, 455 or.; Idem, *Conquista y colonización del valle del Ebro en época tardorrepública y principado*, *Veleia* (Anejos, Series Acta 3, 1996) 63-82; Idem, *Galaicos, astures, cántabros y vascones bajo el dominio romano*, in: BLAZQUEZ, José M^a - ALVAR, Jaime, [Zuz.], *La romanización en occidente*, Madrid 1996, 125-145; Idem, *De vascones a romanos para volver a ser vascones*, RIEV 44 (1999) 147-184; Idem, *Protohistoria e historia de los vascones. Balance historiográfico (1983-2003)*, *Vasconia-CHG* (2005, 34.zk.) 89-116.

⁹ LARRAÑAGA ELORZA, Koldo, *A vueltas con los obispos de Pamplona de época visigoda. Apostillas a una réplica*, HS 50 (1998, 101.zk.) 35-62; Idem, *El hecho colonial romano en el área corcumpirenaica occidental*, Vitoria-Gasteiz 2007, 773 or. (*Veleia*. Anejo. Serie Maior, 12); Idem, *El pasaje del pseudo-Fredegario sobre el Dux Francio de Cantabria y otros indicios de naturaleza sobre presencia franca tardoantigua al sur de los Pirineos*, *AEArq* 66 (1993,167-168.zk.) 179-206; Idem, *Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta Lehen Artaroan. Materiale eta Agiriak*, Bilbo 1992, 263 or.; Idem, *Proceso cristianizador y pervivencia de retuales paganos en el País Vasco en la Tardo Antigüedad y Alta Edad Media*, HS 51 (1999, 104.zk.) 613-621; Idem, *Sobre el obispado pamplonés en época visigoda*, HS 49 (1997, 99.zk.) 279-317; Idem, *Sobre usos del binomio ager-saltus y del término romanización en relación a los procesos de cambio vividos durante la etapa romana en el área circumpirenaica occidental*, *Veleia* (2007-2008, 24-25.zk.) 977-988; Idem, *Un tema controvertido: La relación entre los vascones y la así llamada Bagaudia Tarraconense*, PV (1992, Anejo-14) 229-241.

¹⁰ In: [BATZUK]. *Euskal Herriaren historia*, III, Bilbao 1987, 23-50.

¹¹ Vitoria-Gasteiz, 1988, XXI - 555 or.

¹² K. LARRAÑAGA ELORZA - A. AZKARATE GARAI-OLAUN, *La cristianización del País Vasco. Estado de la cuestión y supuestos metodológicos para la redefinición de los términos de un debate secular*, EHHBB 1. t., San Sebastián 1988, 325-366. Geroago beste liburu interesagarri hau ere argitaratu du: Agustín AZKARATE GARAI-OLAUN - Iñaki GARCÍA CAMINO, *Estelas e inscripciones medievales del País Vasco (Siglos VI-XI). I. País Vasco Occidental. - Euskal Herriko erdi aroko hilarri eta inskripzioak. (VI-XI. mendeak). I. País Vasco Mendebaldea*, Bilbao 1996, 348 or. Ik. ere: Agustín AZKARATE GARAI-OLAUN, *El eremitismo de época visigótica. Testimonios arqueológicos*, Cuarto Seminario sobre el monacato, Codex Aquilarensis, nº 5, Aguilar de Campoo (1991) 141-179.

¹³ AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín, *Nueva inscripción altomedieval vizcaína y revisión del epígrafe de launinco*, Seminario de Filología vasca "julio de Urquijo", XIX, San Sebastián, 1985, 53-67; Idem, *Nueva inscripción altomedieval vizcaína (San Martín de gaztelua, Abadiano) y revisión del epígrafe de launinco (Andra Mari de Muntzaraz, Abadiano, Vizcaya)*, in: ASFV, 19 (1985) 51-63; Idem, *Aportaciones al debate sobre la arquitectura prerrománica peninsular (San Román de Tobillas. Alava)*, Archivo Español de Arqueología (en prensa) (1995); Idem, *San Pelaiko Nekopolia*

Interesgarriak dira Roldán Jimeno Arangurenen idazlanak, batez ere Naparraoari buruzkoak¹⁴.

Nik neuk ere, 1995an, egoera historiografikoari buruz idatzi nuen, kristautzeari buruzko gaien argibideak eskainiz¹⁵. Bixente Latiegik ere argitaratu du euskaldunen kristautzeari buruz, V. mendera arteko kristautzea eta zabalkundea azalduz¹⁶.

Baina herrialde batzuei buruzko lan laburrak ere badira, adibidez Iparraldeko¹⁷ eta Bizkaiko¹⁸, Nafarroako¹⁹ kristautzeaz... Errioxako²⁰ kristautzeaz gainera, Kalahorrako²¹ eta erromatarren eta bisigodoen garaiko Euskal Herri zaharra ezagutzeko hain garrantzitsuak diren ikerlanak aurkitzen ditugu.

c) Kristautzea dela-eta, gai, gertakari eta testigantza batzuk aztertzen.

Euskal Herriaren kristautzean zerikusi handi-handikoak izan dira erromatarkuntza eta bide edo galtzadak, hau da, elkarren arteko harremanetako bideak. Honetaz asko idatzi da²².

c.1. Erromatarkuntza

Erromatarkuntza alde askotatik azter daitekeen errealitatea da; esaterako: kultura aldetik, erlijio aldetik, hizkuntza aldetik, ekonomia aldetik eta abarretatik. Euskal Herrian gurtzen ziren jainko

(Dulantzi), Arkeoikuska 96 (1997) 165-170; Idem, *Reflexiones sobre la implantación del cristianismo entre los vascos*, in: SANTOS, Juan – TEJA, Ramón [Arg.], *Revisión de historia antigua. III. El cristianismo. Aspectos históricos de su origen y difusión en Hispania*, Vitoria-Gasteiz 2000, 303-324; Idem, *La arqueología y los intereses historiográficos. (De los postulados vasco-cantabristas a las necrópolis tardoantiguas de influencia nordpirenaica)*, Bidebarrieta XII (2003) 27-60; Idem, *La arqueología y los intereses historiográficos. (De los postulados vasco-cantabristas a las necrópolis tardoantiguas de influencia nordpirenaica)*, Bidebarrieta 12 (2003) 27-60; *Sobre las huellas iniciales de un asentamiento altomedieval en el País Vasco*, Veleia (2007-2008, 24-25.zk.) 1283-1299; AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín - GARCIA CAMINO, Iñaki, *Pervivencias rituales precristianas en las necrópolis del País Vasco durante el medievo. Testimonios arqueológicos*, in: III Congreso de Arqueología Medieval Española, Oviedo, 1992, II, 483-492; AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín – SÁNCHEZ ZUFIAURRE, Leandro, *Las iglesias prefeudales en Álava. Cronotipología y articulación espacial*, Arqueología de la Arquitectura 2-2003 (Vitoria-Gasteiz), 25-36; AZKARATE, Agustín – NÚÑEZ, Julio – SOLAUN, José Luis, *Materiales y contextos cerámicos de los siglos VI al X en el País Vasco*, in: CABALLERO, Luis – MATEOS, Pedro – RETUERCE, Manuel (eds.), *Cerámicas tardorromanas y altomedievales en la península ibérica. Ruptura y continuidad (II Simposio de Arqueología. Mérida 2001)*, Madrid, 2003, 307-319.

¹⁴ JIMENO ARANGUREN, Roldán – HONOBONO MARTÍNEZ, José Ignacio (Eds.), *Fiestas, rituales e identidades*, en: Zainak. Cuadernos de antropología-etnografía / Eusko Ikaskuntza. N. 26) Donostia, 2004, 1-849 or.; JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Aproximación al primitivo cristianismo en Navarra*, en: ANDREU PINTADO, Javier (Arg.), *Historia en la antigüedad. Propuesta de actualización*. Pamplona, 2006, 287-317; Idem, *Orígenes del cristianismo en la tierra de los Vascones*, Pamplona, 2003, 213 or.; *Red viaria y cristianización*. Pamplona, HS 51 (1999, 104.zk.) 717-740.

¹⁵ Julen URKIZA, *Elizaren historia Euskal Herria. I. Ikerlan materialak*. Markina 1995, 743-763.

¹⁶ *Euskal Kristautasunaren Sorkuntza. Nor, noiz, nola, nondik Euskalerrira Kristautasuna*. Gasteiz, 1996, 571 or. eta *Euskal Kristautasunaren Zabalkuntza bozgarren mendeko Euskalerrira jentillean*. Gure Asaben Arteko Kristautasuna, Ollobarren 1997, 387 or.

¹⁷ Pierre NARBAITZ, *La cristianización del País Vasco-francés*, I SEHEPV (1981) 43-67.

¹⁸ Anastasio de OLABARRIA, *Introducción del cristianismo en Bizkaia*. Bilbao, 1991 53 or.

¹⁹ JIMENO ARANGUREN, Roldán, *Aproximación al primitivo cristianismo en Navarra*, en: ANDREU PINTADO, Javier (Arg.), *Historia en la antigüedad. Propuesta de actualización*. Pamplona 2006, 287-317; Idem, *Orígenes del cristianismo en la tierra de los Vascones*, Pamplona 2003, 213 or.; Idem, *Red viaria y cristianización*. Pamplona, HS 51 (1999, 104.zk.) 717-740.

²⁰ SÁINZ RIPA, Eliseo, *Primer cristianismo en La Rioja*, SEMN (VII) (1997) 343-351; Idem, *Sedes episcopales de la Rioja. I. Siglos IV-XIII*. Logroño, 1994, [VII] - 671 or.; RODRÍGUEZ DE LAMA, Ildelfonso, *El cristianismo y los obispos riojanos en la época visigoda, 415-715*, in: J. GARCIA PRADO [zuz.], *Historia de La Rioja*, 2. t., Logroño 1983, 18-25; Idem, *¿Es de Origen apostólico la diócesis visigoda de Calahorra?*, in: *Calahorra, bimilenario de su fundación. Actas del I symposium de historia de Calahorra*, Madrid 1984, 323-350; BARENAS ALONSO, Ramón, *La cristianización del territorio riojano: el espacio urbano*, Berceo (2011, 160.zk.) 139-174; Idem, *La cristianización del territorio riojano (II). El espacio rural*, Berceo (2012, 162. 4.zk.) 17-62; BRAVO, Gonzalo, *Cristianización y conflictos sociales en el valle medio del Ebro*, in: SANTOS, Juan – TEJA, Ramón [Arg.], *Revisión de historia antigua. III. El cristianismo. Aspectos históricos de su origen y difusión en Hispania*, Vitoria-Gasteiz 2000, 325-338.

²¹ U. ESPINOSA, *Calagurris Iulia*, (Logroño 1984) 211-232. or.; véase también el artículo de A. GONZÁLEZ BLANCO, *Los orígenes cristianos de la ciudad de Calahorra*, Madrid 1984; GONZÁLEZ BLANCO, A., *El cristianismo en el Municipio de Calahorra del 380 al 410*, MHA 5 (1981) 195-202.

²² Ik. EHEH, 767-812.

eta jainkosa erromatarrek ere baziren; Euskal Herritik igarotzen ziren erromatar bide garrantzitsuak; erromatarkuntza egia bihurtzeko bizkarrezur izan ziren bideak²³.

Hala ere argi dagoena zera da: erromatarkuntzaren hedadura eta sakonera alde batetik, eta haien izaeraren barneraketa bestetik, nahiko desberdinak izan direla Euskal Herriko alde batzuetan eta besteetan: Ebro inguruan (Errioxan, Nafarroan eta Araban) eta hirigune batzuetan azkarragoa izan da; gainerako tokietan, ordea, hainbat motelagoa, herrialde guztietan haien aztarnak gelditu diren arren.

Benetan asko aurreratu da erromatarkuntzaren eta haren barneratzearen inguruan egin izan diren era guztitako ikerketei esker. Honela, ikerketa orokorrak nahiz herri bati edo besteri dagozkionak ditugu²⁴. Batzuek, erromatarren garaiko Euskal Herriaren ezagupen osoagoa lortu dute literatur iturrirei esker²⁵.

²³ Esan berri dugunez eta erromatar bideez lehenago esandakoaren harian, Tarragonatik Astorgarako bidea gogoan izan beharrekoa da batez ere. Zerikusi handikoa dugu Tarragonatik Iruñera eta hemendik Easo-ra (Oartzunera) doana ere. Garrantzitsuak dira Iparralde zeharkatzen duten bi bide hauek ere: Bordeleatik Astorgarako bata eta Tolosatik abiatuz, Oloroe-n zehar Jaka eta Huesca-ra doana bestea, inguru hau garai hartan euskalduna zela kontutan izanik batez ere. Kostaldeko bidea ere ez da ahaztekoa.

²⁴ B. ESTORNES LASA, *Historia General de Euskalerría. 221 a. de C. - 476 d. de C. Epoca romana* (San Sebastián 1982); ikusi batez ere, izenburu bereko liburuki batean eta Estudios azpitolupean, B. Estornes-ek dakartzen beste historialari batzuen lanen bilduma; Iq. BARANDIARÁN, *Guipúzcoa en la edad antigua, Protohistoria y Romanización*, (Zarauz 1976); Idem, *La romanización del País Vasco*, in: *Ciclo de Conferencias "Historia de Guipúzcoa"*, San Sebastián 1978; J. M^a BLÁZQUEZ, *¿Romanización o asimilación?*, Veleia (1985 - Anejo 1.zk.), 565-586; A. MARCOS, *La romanización en Navarra (Avance provisional)*, ED 20 (1972) 259-263; M^a A. MEZQUIRIZ, *Romanización*, Pamplona, 1969, 32 or.; I. LASSERRE, *L'origine de la Novempopulanie*, in: *Historia general de Euskalherria, 211 a. de C. - 476 d. de C. Epoca romana: estudios*, [B. ESTORNES DE LASA (zuz.)]. San Sebastián, 1982, 339-358; C. JULLIAN, *Notes gallo-romaines: L'origine de Bayonne*, REA 5 (1905) 147-154; J.-L. TOBIE, *La romanisation du Pays Basque. Eléments de recherche*, BSSAB (1979) 209-213; K. LARRAÑAGA, *Euskal Herriko erromatar kolonizazioaren zenbait ikuspegi*, in: [BATZUK], *Euskal Herriaren historiaz. I*, Bilbao, 1985, 29-52; Idem, *Erromatar inperioa hondoratu zeneko egoera Euskal Herrian*, in: (ELKAR LANEAN) *Euskal Herriaren historiaz. I*, Bilbao 1985, 69-95; R. DEL ARCO, *Nuevos mosaicos sepulcrales romano-cristianos de Coscojuela de Fantova (Huesca)*, BRAH 80 (1922) 247-254; I. BARANDIARÁN, *Notas para una historia breve de la antigüedad local*, in: *Obras seleccionadas*, 2. t.: *De arte y de historia*. Madrid, 1970, 1159-1241; A. BESGA, *El fin del dominio romano en el País Vasco*, in: [BATZUK], *25 años Facultad de Filosofía y Letras. II. Estudios de Geografía e historia*, Deusto, 1988, 247-283; J. M^a BLÁZQUEZ, *Nuevos estudios sobre la Romanización*, Madrid, 1989, 641 or.; Idem, *Asimilación y resistencia a la romanización entre los pueblos del norte de Hispania*, in: *Asimilación...*, (Vitoria, 1985), 7-45; M^a C. GONZÁLEZ RODRÍGUEZ, *Indígenas y romanos en el territorio del País Vasco actual*, EHHBB 1. t., San Sebastián 1988, 143-162; M. MARTÍN-BUENO, *Vías de comunicación y romanización del Alto Aragón*, EPPP (Puigcerdà 1978) 275-300; E. ORTIZ DE URBINA, *Aspectos de la evolución de la estructura social indígena del grupo de población autrigón en la época prerromana y altoimperial*, EHHBB 1. t., San Sebastián 183-194; M^a E. ORTIZ DE URBINA ALAVA, *El proceso de romanización en el territorio vascón: Evolución de la onomástica personal*, PV 48 (1987, 7.gehig.) 531-545; M. J. PEREX AGORRETA, *Los vascones (El planteamiento en época romana)*, [Pamplona] 1986, 357 or.; J. SANTOS YANGUAS, *El poblamiento romano en el área de autrigones, caristos, várdulos y vascones. Estado actual de la investigación y perspectivas*, EHHBB 1. t., San Sebastián 1988, 215-234; M. E. SOLOVERA, *La romanización de La Rioja. Aspectos sociales y económicos del territorio berón*, [Doktor-tesia], Valladolid, 1981; J. L. TOBIE, *Le Pays Basque Nord et la romanisation (Ier siècle avant J.-C. 3 siècle après J.-C.)*, BMB (1982, 95.zk.) 1-36; V. ESPINOSA - A. PÉREZ RODRÍGUEZ, *Tritium Magallum: de ciudad peregrina a municipio romano*, AEA 55 (1982) 65-87; J. PASCUAL GONZÁLEZ, *El municipio Cascantum y los progresos de la romanización en el sur de la actual provincia de Navarra*, PV 48 (1987, 7. gehig.) 547-552; J. M^a SOLANA SAINZ, *Flaviobriga (Castro Urdiales)*, Altamira 40 (1976) 1-60. BAÑALES LEOZ, Jesús María - BAÑALES LEOZ, Miguel, *Nuevos restos romanos en Artajona*, PV (1992, Anejo-14) 183-194; ECHEVARRIA OLAIZ, Ana Isabel [Zuz.], *Bidasoa behea erromatarren garaian - Irungo Ama Xantalengo Museoa ezagutzeko gidaliburua*. San Sebastián, 1995, LXXIV or.; ESTEBAN DELGADO, Milagros, *El País Vasco Atlántico en época romana*, San Sebastián 1990. Archivo Español de Arqueología 40 (1967) 30-50; ESTEBAN, Milagros, *Erromatar aroa Zarautzen*, ZBI 3 (1987) 223-227; FILLÓY NIEVA, Idoia - GIL ZUBILLAGA, Eliseo, *La romanización en Alava. Catálogo de la exposición permanente sobre Alava en época romana del Museo de Arqueología de Alava*. Vitoria-Gasteiz, 2000, 325 or.; GARCÍA GARCÍA, María Luisa, *La ocupación del territorio navarro en época romana*, Cuadernos de Arqueología de la Universidad de Navarra, 3 (1995) 231-270; GIL ZUBILLAGA, Eliseo, *La romanización en Álava, valoración arqueológica*, Munibe. Antropología-Arkeología 42 (1990) 327-336; LARRAÑAGA ELORZA, Koldo, *El hecho colonial romano en el área circumpirenaica occidental*, Vitoria-Gasteiz, 2007, 773 or.; LARRAÑAGA ELORZA, Koldo, *Sobre usos del binomio ager-saltus y del término romanización en relación a los procesos de cambio vividos durante la etapa romana en el área circumpirenaica occidental*, Veleia (2007-2008, 24-25.zk.) 977-988; MARCO SIMÓN, Francisco, *Sobre la romanización religiosa en los Pirineos*, Veleia (2007-2008, 24-25.zk.) 1017-1033. MARTÍNEZ SALCEDO, Ana, *Arqueología e historia del período romano en Bizkaia (1972-2002)*, Kobie (vol. 1) (2004) 353-369; MEZQUIRIZ IRUJO, María Ángeles, *Vestigios romanos en la catedral y su entorno*,

Ikerketa arkeologikoen gero eta argiago uzten digute erromatarren kokaguneeen hedadura alde batzuetan eta besteetan²⁶. Euskal Herrian aurkitu diren erromatarren idazkun edo inskripzioak ere geroago eta gehiago ikertzen eta azaltzen dira; esaterako: Nafarroakoak²⁷, Bizkaikoak²⁸,

en: *La Catedral de Pamplona*, I, Pamplona 1994, 112-131; MEZQUIRIZ IRUJO, M^a Angeles, *El período romano en la Vasconia Peninsular*, *Isturitz* 7 (1997) 83-93; MEZQUIRIZ IRUJO, M^a Angeles, *La aculturación romana de los vascones*, *Veleia* (2007-2008, 24-25.zk.) 963-976; SAN VICENTE, Iñaki, *La época romana*, in: Antonio RIVERA (dir.), *Historia de Álava*, Vitoria 2003, 67-85; TOBIE, Jean Luc, *La romanización en el País Vasco norte*, en: Ibaia eta Haranak 10 (San Sebastián 1991) 33-48; URTEAGA, Mertxe - ARCE, Javier, *Erromatar arkeologia Gipuzkoan. Arqueología romana en Gipuzkoa*, Donostia-San Sebastián 2011, 243 or.; VELAZA FRÍAS, Javier, *Olite romano: evidencias epigráficas*, en: *Trabajos de Arqueología Navarra*, 13 (1997-1998) 235-246.

²⁵ A. SCHULTEN, *Las referencias sobre los Vascones hasta el año 810 después de J.C.*, *RIEV* 18 (1927) 225-240; J. M^a BLÁZQUEZ, *Los vascos y sus vecinos en las fuentes literarias griegas y romanas de la antigüedad*, in: *Problemas de la prehistoria y de la etnología vascas (IV Symposium de Prehistoria Peninsular bajo la dirección del Dr. D. Juan Maluquer de Motes)*, Pamplona 1966, 177-205; A. E. MAÑARICUA, *Fuentes literarias de época romana acerca del Pueblo Vasco*, *ED* 20 (1972) 221-229; J. M^a SOLANA SAINZ, *Los autrigones a través de las fuentes literarias*, Vitoria, 1974, 168 or.; M. J. PEREX AGORRETA, *Vascones en La Rioja en época romana (según las fuentes literarias)*, *SCHR*, 1986, I, 211-217; *Idem*, *Los vascones (El planteamiento en época romana)*, [Pamplona] 1986, 357 or.; A. EMBORUJO, *El límite entre várdulos y vascones: una cuestión abierta*, *PV* 48 (1987, 7. gehig.) 379-393; L. SAGRADO, *Los Várdulos en las fuentes escritas*, Valladolid 1979; M. A. VILLACAMPA, *Los berones a través de las fuentes epigráficas*, *Caesaraugusta* 45-46 (1978) 43-62.

²⁶ J. M^a DE CORTA, *Vías romanas en Alava. Monumentos arqueológicos*, *EA* 18 (1928) 326-361; B. TARACENA - L. VÁZQUEZ DE PARGA, *Excavaciones en Navarra*, 2. t., Pamplona 1956, VI - 215 or.; J. AMADOR DE LOS RÍOS, *Estudios monumentales y arqueológicos. Las Provincias Vascongadas*, *REsp* 20 (1871) 497-507; 21 (1871) 5-29, 398-421; 22 (1871) 38-59, 340-365; G. NIETO GALLO, *El oppidum de Iruña [Alava]. Memoria de las excavaciones*, Vitoria 1958, 237 or.; A. BALIL, *Algunos mosaicos hispanorromanos de época tardía*, *PV* 26 (1965) 281-293; E. VALLESPI, *Hipótesis de trabajo sobre el sustrato arqueológico de la romanización del País Vasco meridional (Alava y Navarra)*, *ED* 20 (1972) 241-250; A. LLANOS, *La romanización de Alava. Elementos arqueológicos*, *ED* 20 (1972) 251-257; J. M^a APELLANIZ, *La romanización del País Vasco en los yacimientos en cuevas*, *ED* 20 (1972) 305-310; A. AGUIRRE ANDRÉS, *Materiales arqueológicos de Vizcaya*, Bilbao 1955, 219 or.; Ig. BARANDIARÁN, *Irún romano*, *Munibe* 25 (1973) 19-28; *Idem*, *Guipúzcoa en la edad antigua. Protohistoria y Romanización*. Zarauz, 1976, 126 or.; J. M^a BLÁZQUEZ - M^a A. MEZQUIRIZ, *Mosaicos romanos de Navarra*, *PB* 48 (1987, 7. gehig.), 307-337; R. LOZA LENGARAN, *La romanización. Necrópolis romanas*, in: *Museo de arqueología de Alava*, Vitoria-Gasteiz, 1983, 137-196; M. A. MEZQUIRIZ, *Pamplona romana*, Pamplona 1973, 32 or.; J. A. AGORRETA - M^a L. ALBERTOS..., *Guía del museo provincial de arqueología de Alava*, Vitoria, 1978, 100 or.; M. MARTÍN-BUENO - M. L. CANCELA, *Arqueología clásica de Calahorra y su entorno*, in: *Calahorra. Bimilenario de su fundación. Actas del I symposium de historia de Calahorra*, Madrid 1984, 77-91; A. MARTÍNEZ SALCEDO, *La cerámica común de época romana en el País Vasco*, Vitoria-Gasteiz 2004, 470 or.; [BATZUK], *Museo de Arqueología de Alava*, Vitoria-Gasteiz 1983, 220 or.; [BATZUK], *Investigaciones arqueológicas en Alava, 1957-1968*, Vitoria, 1971, 324 or.; J. SANTOS YANGUAS, *Conquista y ordenación del territorio de Alava por los romanos en época altoimperial*, in: *La Formación de Alava*, Vitoria-Gasteiz 1984, 447-466; J. L. MARCOS MUÑOZ, *Carta arqueológica de Vizcaya. Primera parte: Yacimientos en cueva*, Bilbao 1982, 244 or.; J. GORROCHATEGI - M^a J. YARRITU, *Carta arqueológica de Vizcaya. Segunda parte: Materiales de superficie*, Bilbao 1984, 232 or.; A. MARCOS POUS, *Trabajos arqueológicos en la Libia de los berones (Herraméluri, Logroño)*, Logroño 1979, 278 or.; Ikusi Errioxari dagokion bibliografía ere honako obra honetan: V. ESPINOSA RUIZ, *Estudio de bibliografía arqueológica riojana: prehistoria e historia antigua*, Logroño 1981, 299 or.; P. GALINDO, *El mosaico romano de Alfaró*, *Zurita* 10 (1933) 12. hurr.; M. BELTRÁN LLORIS, *La arqueología romana del valle del Ebro*, XVII CNAr (Zaragoza 1985) 27-42; E. ARIÑO GIL, *Centuriaciones romanas en el valle medio del Ebro*, *Provincia de La Rioja*, Logroño 1986, 104 or., etab.

²⁷ F. BARAIBAR, *Lápidas romanas inéditas en Nabarra y Alaba*, *EErria* 32 (1895) 218-224; F. FITA, *Lápidas romanas de Iruña y León*, *BRAH* 3 (1883) 382-386; *Idem*, *Lápidas romanas de Gastiain (Navarra)*, *BCMN* 4 (1913) 226-233; *Idem*, *Miliarios romanos de Eslaba y Gallipienzo, en el partido de Aoiz, provincia de Navarra*, *BRAH* 70 (1917) 536-541; GERMÁN DE PAMPLONA, *De nuevo sobre la lápida hispano-romana de Lerga (Navarra)*, *PV* 22 (1961) 213-216; A. GARCÍA BELLIDO, *Novedades epigráficas. Novedades epigráficas. Inscripciones romanas*, *BRAH* 168 (1971) 179-205; J. GÓMEZ-PANTOJA, *Nuevas inscripciones romanas de Navarra*, *PV* 40 (1979) 5-30; L. MICHELENA, *Los nombres indígenas de la inscripción hispano-romana de Lerga (Navarra)*, *PV* 22 (1961) 65-74; E. GIL ZUBILLAGA - I. FILLOY, *Estudio arqueológico de los precedentes del poblamiento en torno a Vitoria-Gasteiz (Bronce final - Edad del Hierro - romanización)*, *EAA* 16 (1988) 445-530; C. CASTILLO - C. FERNÁNDEZ, *Navarra en época romana: Datos que aportan las fuentes epigráficas*, *PV* 48 (1987, 7. gehig.) 363-368; VELAZA, Javier, *Una nueva inscripción romana procedente de Muzqui, Navarra*, *PV* 55 (1994) 301-303. GÓMEZ PANTOJA, Joaquín, *Nuevas inscripciones romanas de Navarra*, *PV* 40 (1979) 154-155 (1997) 5-30; JIMENO ARANGUREN, Roldán - TOBALINA ORAÁ, Eva - VELAZA FRÍAS, Javier, *Una nueva ara romana procedente de Ízcue (Navarra)*, in: *Epigraphica* 60 (1998) 290-294; LEIZAOLA, Fermín, *Fragmentos de lápidas de época romana en el término de Olazagutía, Navarra*, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* 7 (1975) 445-455; OZCÁRIZ GIL, Pablo, *Inscripciones de la ermita de San Sebastián de Gastiain. Estudios modernos (1946-2014) y nuevos fragmentos*, *PV* 76 (2015) 359-372; VELAZA FRÍAS, Javier, *Crónica de epigrafía antigua de Navarra, III*, *PV* 72 (2011, n. 253) 169-176; IDEM, *Crónica de epigrafía antigua de Navarra IV*, *PV* 76 (2015) 385-398; IDEM, *La inscripción cristiana de Cascante: revisión y comentario*, *PV* 60 (1999) 657-662.

Arabakoak²⁹, Errioxakoak³⁰, Pirinio aldekoak eta Iparraldekoak³¹, ikertzaileak gehien erakarri dituztenak Hazparneko inskripzio sonatuak izanik³²; etab.

c. 2. Prudentzioren testigantzak eta Kalahorra

Lehenengoetako testigantza Prudentzioren lan poetikoan aurkitzen dugu (348-405); haren *Peristephanon* liburuan honako hau irakurtzen dugu: "Sinesten al duzu, *behinolako* euskaldunen paganismoa, zein santua zen hutsegite anker hark isurarazi zuen odola? Sinesten al duzu hilak zirenen arimak Jainkoagana joanak direla?"³³.

Bi hitz dira testu honetan interesgarrienak: *behinolako* (*quondam*) eta paganismoa (*gentilitas*). Eztabaidatua izan da pasarte honen esannahia, eta hortik bakoitzak bere ondorioak ateratzen ditu. Benetan sinesgarriak dira A. E. Mañarikua-k Prudentzioren 'gentilitas' honi buruz

²⁸ M. GÓMEZ MORENO, *De epigrafía vizcaina*, BRAH 128 (1951) 197-217; J. DE YBARRA Y BERGÉ, *Lo romano de Vizcaya*, Zumárraga 4 (1955) 11-43; J.M. FERNÁNDEZ, *Epigrafía romana en Autrigonia*, Altamira (1965) 185-209; S. CRESPO ORTIZ DE ZARATE, *Las fuentes epigráficas de Vizcaya en época romana*, LD 11 (1981, 21.zk.) 201-210; A. RODRÍGUEZ COLMENERO - M^a COVADONGA CARREÑO, *Epigrafía Vizcaina. Revisión, nuevas aportaciones e interpretación histórica*, Kobie (1981, 11.zk.) 81-163; J. M^a SOLANA SAINZ, *Autrigonia romana. Zona de contacto Castilla-Vasconia*, Valladolid 1978, 495 or.; F. J. GONZÁLEZ DE DURANA, *Dos lápidas romanas en la iglesia de San Lorenzo de Zarátamo (Vizcaya)*, Kobie 10 (1980) 515-517; A. MARTÍNEZ SALCEDO - M. UNZUETA, *Estudio del material romano de la cueva de Peña Forua (Forua - Vizcaya)*, Bilbao 1988, 172 or.; AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustín, *Nueva inscripción altomedieval vizcaina y revisión del epígrafe de launinco*, Seminario de Filología vasca "julio de Urquijo", XIX, San Sebastián, 1985, 53-67;

²⁹ F. BARAIBAR, *Inscripciones romanas cerca del Ebro en las Provincias de Alava y Burgos*, BRAH 14 (1889) 67-72; Idem, *Epigrafía armentense*, BRAH 49 (1906) 241-265; Idem, *Lápidas romanas inéditas en Navarra y Alaba*, EErria 32 (1895) 218-224; J. C. ELORZA, *E Ensayo topográfico de epigrafía romana alavesa*, Vitoria, 1967, 67 or.; M^a L. ALBERTOS, *La antroponimia en las inscripciones hispano-romanas del País Vasco. Reflejos de la onomástica personal de época romana en los topónimos alaveses*, ED 20 (1972) 335-356; Idem, *Onomástica personal en las inscripciones de Alava*, in: *Formación de Alava. 650 aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982)*, Vitoria-Gasteiz 1984, 33-61; J. M. DÍAZ BALERDI, *Divinidades salutíferas en la epigrafía romana de Alava*, CHMV 2 (1983) 113-119; M. C. GONZÁLEZ RODRÍGUEZ, *Síntesis histórica de epigrafía romano-alavesa*, Veleia 1 (1984) 217-231; J. M^a SOLANA SAINZ, *Autrigonia romana. Zona de contacto Castilla-Vasconia*, Valladolid 1978, 495 or.; J. A. ABASOLO ÁLVAREZ - L. R. LOZA - J. A. SAENZ DE BURUAGA, *Columna miliaria de Errekaleor (Vitoria-Alava)*, EAA 11 (1983) 427-439; A. SAENZ DE BURUAGA, *Nuevas inscripciones de época romana en Alava*, EAA 16 (1988) 531-556; ABASCAL PALAZÓN, Juan Manuel, *Escritura, hábito epigráfico y territorio en la Navarra romana*, PV 76 (2015) 41-70; ALBERTOS, María Lourdes, *Síntesis histórica de epigrafía romano-alavesa*, Veleia 1 (1984) 217-231; SAENZ DE BURUAGA BLÁZQUEZ, Andoni, *Observaciones en torno al trazado de la Vía Astorga-Burdeos por Álava a partir de los monumentos epigráficos*, EAA 23 (2006) 26-.

³⁰ F. FITA, *Lápidas romanas del valle de San Millán, Vallada, Ternils y Denia*, BRAH 4 (1884) 10-24; L. GARCÍA DEL MORAL, *Graccuris-Alfaro. Un testimonio epigráfico*, Berceo 23 (1968) 81-86; A. MARCOS POUS, *Aportaciones a la epigrafía romana de La Rioja*, Berceo (1974) 119-134; M. A. MAGALLÓN, *Los desplazamientos de época romana en el Valle Medio del Ebro a través de los documentos epigráficos*, Caesaraugusta 45-46 (1978) 149-174; J. C. ELORZA - M^a L. ALBERTOS - A. GONZÁLEZ, *Inscripciones romanas en La Rioja*, Logroño 1980, 95 or.; ikus lan hauek ere: J. M^a PASCUAL FERNÁNDEZ, *La Rioja durante el Imperio Romano*, in: GARCÍA PRADO, J. [zuz.], *Historia de La Rioja*, 1. t., Logroño 1983, 140-175; T. GARABITO - M^a E. SOLOVERA - D. PRADALES, *Los alfares romanos de Tricio y Arenzana de Arriba: estado de la cuestión*, SCHR 1986, I, 129-142; M^a J. PEREX AGORRETA, *Vascones en La Rioja en época romana (según las fuentes literarias)*, SCHR, 1986, I, 211-217.

³¹ J.-Fr. BLADE, *Épigraphie antique de la Gascogne*, Bordeaux 1885, XVI - 221 or.; J. SACAZE, *Inscriptions antiques des Pyrénées*, Toulouse 1892, 576 or.; Idem, *Sur les inscriptions romaines trouvées à Mauleon*, RC 2 (1886) 290; FAVBREAU, R. - LEPLANT, B. - MICHAUD, J., *Corpus des inscriptions de la France médiévale*, 6. Gers, Landes, Lot-et-Garonne, Pyrénées-Atlantiques, Paris, 1981. (CNRS).

³² R. VEILLET, *Disertation sur une inscription trouvée dans l'église de Hasparren, au Diocèse de Bayonne*, MHSBA (1703) 1825-1833; A. L. Ch. A. DU MEGE, *Note sur une inscription découverte à Hasparren*, MASIBL 5 (1885) 21-26; H. POYDENOT, *L'inscription de Hasparren*, CFS 2 (1873) 161-174; Idem, *Essai sur l'inscription romaine de Hasparren (Basses-Pyrénées)*. Paris, 1872, 14 or.; Idem, *L'inscription de Hasparren. L'Évêché de Bayonne. La cité des Boiates*, EHRB 4 (1895) 88-93; Idem, *Note sur la date probable de l'inscription romaine de Hasparren*. Dax, 1883, 15 or.; Idem, *Deuxième note sur la date probable de l'inscription romaine de Hasparren*. Bayonne, 1891, 19 or.; Idem, *Note sur la authenticité de l'inscription romaine de Hasparren. Réponse a M. François-Saint-Maur*, Pau 1873, 15 or.; E. DESJARDINS, *Inscription d'Hasparren*. Paris, 1882, 7 or.; Idem, *L'Inscription d'Hasparren et les Novem populi*, BPH 1 (1883) 163-173; A. SAINT-VANNE, *Impressions sur l'inscription d'Hasparren*, Bayonne 1916, 7 or.; H. RICHTER, *L'inscription d'Hasparren et ses Gallos*, BSSAB (1944) 85-90; C. URRUTIBEHETY, *A propos de la pierre romaine de Hasparren et de l'autel de la Madeleine de Tardets*, BMB (1977) 203-208.

³³ "Iamne credis bruta quondam vasconum gentilitas / quam sacrum crudelis error immolarit sanguinem? / Credis in Deum relatos hostiarum spiritus".

emandako azalpenak. 'Gentilitas' hitzak, Prudentziorengan 'paganismo', jentil edo kristautasunik eza adierazten du³⁴.

c.3. Martiriak eta soldaduak

Lehenengo bi mendeetan Euskal Herri zaharreko asko ari ziren erromatarren armadetan soldadutza egiten. Heldu ere, euren gudalsail bereziak izateraino heldu ziren: A. García Bellido³⁵, «Cohortes Vasconum» I eta II, «Cohors carietum eta veniaesum» (Carietes eta Beleia-koak), «Cohors I fida **vardullorum**» gudalsailaz ari da ikerketak egiten eta, beharbada, Autrigoiak ere izango ziren.

Lehenengo ebanjelizatzaile eta kristautzearen aitzindariak Euskal Herrian nortzuk zitezkeen jakiteko inolako berri ziur eta fidagarririk ez dugun arren, euskaldunak (soldaduak) eurak ere izan zitezkeela erlijio berriaren bultzatzaile eta eragile pentsatzeari ezin diogu, besterik gabe, uko egin. Hala izan zitezkeela erraz onartzekoa da, kristautzeak eragin zuen gizarte-iraultza hartan Erromako inperioko soldadu asko eta asko egin baitziren kristau.



San Emeterio eta San Zeledonio

Kalahorran, hain zuzen, bi soldadu martiri ditugu, Emeterio eta Zeledonio, III. mendearen bukaeran edo IV.aren hasieran hil zituztenak; haien hilobia Kalahorran delako lekukotasuna Prudentziok ematen digu, kristautzearen ingurune garrantzitsu bihurtu zelarik³⁶.

Historialaririk gehienek soldaduak zirela diote, eta ziurrenik, *Legio VII Gemina* sailekoak eta Kalahorrako gudalsailan kokatuak³⁷. V. Espinosa-ren iritziz, Kalahorran kokatuak ez bazeuden, Kantabria nahiz Baskonia sailletakoak izan zitezkeen, luliobriga-n eta Beleia-n ere baziren gudalsailak eta³⁸. Emeterio eta Zeledonio nongoak ziren ziurtasunik eduki ez arren, A.E. Mañaricua-k³⁹, Kalahorrakoak edo Kalahorratik hurbilekoak (Baskoien herrialdekoak) izan zitezkeelako ustea egiantzekotzat jotzen du⁴⁰.

c.4. Afrikako eragina?

³⁴ A. E. MAÑARICUA, "Vasconum gentilitas" en *Prudencio* (Per. 1,94), ED 15 (1967) 255-270; Idem, *Al Margen del Himno I del «Peristephanon» del poeta Prudencio*, Berceo 3 (1948) 489-513.

³⁵ Los «vascos» en el ejército romano, FLV 1 (1969) 97-107; Idem, *Estudios sobre la Leg. VII Gemina y su campamento en León*, in: *Legio VII Gemina*, (León, 1970) 569-599; Idem, *Los "Vardulli" en el ejército romano*, BRSVAP 10 (1954) 134-139.

³⁶ A. E. MAÑARICUA, *Al Margen del Himno I del "Peristephanon" del poeta Prudencio*, Berceo 3 (1948) 496-501. or.

³⁷ M. SOTOMAYOR, *La Iglesia en la España romana*, HIE I (Madrid 1979) 7-400, 71. or.; J. J. SAYAS, *Algunas consideraciones sobre la cristianización de los vascos*, PV 46 (1985) 42-43. or.; V. ESPINOSA, *Calagurris Iulia*, 219. or.

³⁸ V. ESPINOSA, *Calagurris Iulia*, Logroño 1984, 353 or.

³⁹ *Al Margen del Himno I del «Peristephanon» del poeta Prudencio*, Berceo 3 (1948) 497.

⁴⁰ M. Lekuonak, bi martirien jatorriaz gauza ziurrik ez dakigula esan ondoren, itxura guztien arabera, Kalahorrakoak zirelako arrazoiak bilatzera jo zuen. Ikus beste bibliografi hau ere: Acta Sanctorum, Martii I, 228-234; A. FÁBREGA, *Pasionario hispánico (siglos VII-XI)*. 1. t., Madrid-Barcelona 1953, 120-125; P. GUTIÉRREZ ACHUTEGUI, *Los Santos Mártires Emeterio y Celedonio, Patronos de Calahorra*, Calahorra 1960; J. CANTERA ORIVE, *Una segunda traslación de los Santos Mártires de Calahorra*, Berceo 18 (1963) 395-400.

Espainiako kristautasunaren lehenengo albisteak III. mendearen hasierakoak dira. Kartagoko apezpiku zen Zipriano-ren 254. gutunean ikus daitekeenez⁴¹, Astorgan, Leonen, Meridan eta Zaragozan baziren kristau-komunitateak. Batzuen iritziz Espainiako kristautasunak Afrikan izan dezake sorrera, edota behintzat hango zantzuak nabari zaizkiola diote⁴².

M. E. Solovera-k eta T. Garabito-k, ordea, afrikar sorreraren aldeko frogarik badela Errioxan uste dute eta bi arrazoi hauek ematen dituzte: *Legio VII Gemina* Afrikan izatea eta Espainiako merkatariak Afrikako iparraldean izatea⁴³: a) Gudalsail honetako soldaduak Donemilliaga Kukulana eta Tricion daude eta, ziur asko, Emeterio eta Zeledonio Kalahorrako bi martiriak ere sail honetakoak izango ziren; b) Oraindik garrantzi handiagokoa dirudi Errioxa eta Afrikako iparraldearen arteko merkatal harreman sarrien frogak; zehazkiago esateko, ontzigile (buztinlari) errioxarrek Afrikako iparraldekoekin zituzten harremanak. Dena dela, horrek ez du beste sarbiderik ukatzen eta kristautasuna sar zitekeen Italiatik legionario eta merkatarien bidez eta Galliatik ere bai, bitartekoak hemen ere legionario eta merkatariak izanik.

Hala ere kontuz ibili behar da hango nahiz hemengo hipotesiak guztietara zabaltzerakoan.

c.5. Kalahorrako Silbano apezpikua

Ondorio batzuk ateratzeko abagunean jartzen gaituen gertakari bat izan zen. 457tik 465era bitarteko urteak ziren. Kalahorrako apezpiku zen Silbanok apezpiku-kontsakrazioa egiten du 457an gutxi gorabehera, metropoliko apezpikuari adierazi gabe. Askaniok, Tarragonako apezpikuak, Hilario Aita Santuagana jo zuen Silbano salatuz. Aita Santuak eta metropoliko apezpikuak gutun batzuk elkarri egin ondoren, Hilario Aita Santuak Askanioren aldeko epaia eman arren, bihozbera jokutzen du Silbanorekin, garai hartako egoera larriak horixe eskatzen baitzuen⁴⁴. Gotzain berriak norako ziren? Kaskanterako?

c.6. Iruñea

Egia esan, Iruñearen kristautzearen hasierak ilunpean gorderik daude. Lehen-lehenik Iruñeko kokagunetik igarotzen diren bideak aipatu behar dira: Tarragonatik Oiassorakoa eta Bordeletik Astorgarakoa bereziki. Esaterako, Tarragonatik Astorgarako bidean, Nafarroako hegoalderantz dauden Kalahorrak eta segurazki Kaskantek (?) 464tik 465era bitartean apezpikua zutela badakigu. Kalahorran bezala gainerako herrietan ere soldaduak izan zitezkeen, «funduetako» maizterren bidez, erlijio berriaren aitzindari, kristautzearen eragile bizi-biziak baitziren.

Argi dagoena hau da: iparraldeko bide-sarean kokatutako beste hiri batzuek III. mendetik V.era bitartean apezpikua zutela dioten albisteak badira, Iruñean ere gauza bera gertatuko zela; hau da, garai berean apezpikua izango zuela, inguru osoa kristau-erlijioaren gune garrantzitsu bihurturik.

Geroagoko dokumentu argi-argia dugu Liliolo-ren sinadura, 589an, eta Toledoko III. Kontzilioan Iruñeko apezpiku gisa agertzen da^{45,62}.

⁴¹ M. SOTOMAYOR, *La Iglesia en la España romana*, HIE I (Madrid 1979) 42-44.

⁴² M. DÍAZ Y DÍAZ, *En torno a los orígenes del cristianismo hispánico*, Raíces (Madrid 1967) 423-443; J. M^a BLÁZQUEZ *Orígenes africanos del cristianismo español*, in: *Imagen y mito*, Madrid 1977, 467-494; Idem, *Posible origen africano del cristianismo español*, AEAq 40 (1967) 30-50.

⁴³ *La religión indígena y romana en La Rioja de los berones*, HA 8 (1978) 189-199.

⁴⁴ A. E. MAÑARICUA, *Al Margen del Himno I del "Peristephanon" del poeta Prudencio*, Berceo 3 (1948) 506-508; V. ESPINOSA, *Calagvrris Ivlia*, Logroño 1984, 271-278; M^a V. ESCRIBANO PAÑO, *La iglesia calagurritana entre ca. 457 y 465. El caso del obispo Silvano*, in: *Calahorra. Bimilenario de su fundación. Actas del I symposium de historia de Calahorra*, Madrid 1984, 265-272; M. ALAMO, *Calahorra*, DHGE 11 (1949) 267-327.

⁴⁵ *Concilios visigóticos e hispano-romanos*, Barcelona-Madrid 1963, 138.

c.7. Baiona eta Novempopulania

Kristautzeari buruz Iparraldeko egoera oraindik ilunagoa da, baina haren inguruneak nolabait egiten digu argi.

III. mendean Iparraldea ere barru zuen «Novem Populi» erromatar probintziarekin egiten dugu topo. Hasieran bost hirik osatzen zuen, geroago bederatzik eta azkenez hamabik; azpimarratzekoa da hamabi hiri hauetariko bakoitzak bere apezpikua zuela V. eta VI. mendeetan; hauek dira: Eause, Akize, Lectoure, Bazas, Auch, Comminges, Boatium (Buch?), Lescar-Biarno, Aire, Conserans, Oloroe, Tarbes-Bigorre⁴⁶.

VI. mendean jadanik Eliza ongi eraturik agertzen da. Oraingo Iparraldea eta Baiona salbuespen izango ote dira, bada?

Lapurdum 'civitas' gisa eta, ondorioz, apezpiku-hiri gisa, nahiko berandu VI. mendean (587an) agertzen denean, batzuen iritzian, era guztitako eta elkarren aurkako iritziak sortzen dira.

Bestalde, hegoalderago, Iruñean, Huescan eta abarretan ere VI. mendean apezpiku-hiriak eta kristau-komunitateak aurkitzen ditugu. Horrez gainera, inperioko bideek eta beste batzuek Euskal Herri osoa zeharkatzen zutela gogoan hartuz gero, VI. mendean kristau-komunitateak egotea ez dela batere harritzekoa pentsatu behar. Baina hala ere, dokumenturik ez den bitartean egiantzekotzat bai, baina ziur-ziurtzat ezin jo.

Neure liburuan (786-804) jarri nituen historialarien iritzi eta jarrerak, aldekoak eta kontrakoak. Baina beste gertaera bat gehitu behar da auzi honetan: Saint-Severeko Beatoaren mapamundian, Garonaren behealdeko katedral ugartan, Bordeleko eta Tolosako gotzaindegiek dituzte soilik hiru ate. Saint-Severeko Beatoa, gutxi gorabehera, XI. mendearen erdikoa izanik, nola izan daiteke "Lapurdum-Baiona"ko katedralak hiru ate izatea, hau da, Novempopulaniako gotzaindegirik garrantzitsuenak bezala? Beharbada, antzina izan zenaren oroimenez? Kontua da gotzain-hiri gisa ez zela Lapurdum-Baionaren albiste-aztarnarik geratu hainbat mendetan...

c.8. Benetako gertakari, istorio eta egia desitxuratzeak sortutako arazo historikoak

Euskal Herriko lehen garaietako kristautasunari buruz historialari batzuen eta besteen artean oso eztabaidatuak diren hainbat gai ditugu. Era oso desberdinez ulertzen diren gertakari eta istorioak, are gehiago, egiaren desitxuratzeak edo manipulazioak.

- *Ausonio eta Paulinoren arteko gutunak.*

390etik 395era bitartean edo zen⁴⁷ Ausonio, Bordeleko semea, arranguraz agertzen da Paulino bere ikaslearen aurrean, hau Pirinioetako oihanetan bere lehengo jokaera onetik aldendu delako. Euskaldunei buruz hor esandakoek zeresan ugari sortu dute: Dirudienez, Paulinoren helburu edo asmoak, euskaldunekin mendi aldean egotean, ez ziren misio-helburuak edota haiei Ebanjelioa iragartzekoak, bere buruarentzat bakardadea eta aszetika-giro egokia bilatzekoak baizik. Gutun hauetan oinarriturik, euskal Pirinioetan paganismoak izan zezakeen

⁴⁶ F. LOT - E. HOUTH, *Recherches sur la population et la superficie des cités remontant à la période gallo-romaine. Troisième partie*, Paris 1953, 368 or.; Ch. HIGOUNET, [Zuz.], *Histoire de l'Aquitaine*, Toulouse 1971, 537 or.; M. ROUCHE, *L'Aquitaine des wisigoths aux arabes, 418-781. Naissance d'une région*, Paris 1979, 777 or.; J. CARO BAROJA, *La Aquitania y los nueve pueblos*, AEA 17 (1944) 113-134; Idem, *Sobre los pueblos de Aquitania y su relación con los vascos*, HGPV 2 (San Sebastián, 1980) 221-259; L. PUECH, *Histoire de la Gascogne*, Auch 1914, 418 or.

⁴⁷ D. M. AUSONIUS (arg. R. Peiper), *Opuscula*. Lipsiae, 1886. (Argitaratzaile: Rudolphus Peiper). CXXVIII - 556 or.; PAULINUS DE NOLA (lanak), PL 61, 153-744.

hedaduraz eztabaidak izan dira. Egia esan, IV. mendean paganismoa mendi aldean indartsu egotea ez da batere harritzekoa, Ebro aldeko ibarretan ere guztiz itzali gabe zegoen eta⁴⁸.

- *Tajón, Zaragozako apezpikuaren testua.*

Honek, "Las sentencias" deritzon liburuan, euskaldunei buruz zakurrenak esanik egindako adierazpenetan argi handia egiten digu A. E. Mañaricua-k eragozpenak eta gaizki ulertutakoak baztertzeko lagunduz⁴⁹. Lehen-lehenik Froya-k euskaldunen laguntzaz VII. mendearen erdialderantz egindako Zaragozako setioaz dihardu; Tajon-ek han egin ziren ankerkeriak kontatzen ditu⁵⁰. Tajón-ekin gutunez harremanak izan zituen San Braulio berak ere hura gizon suminkor eta patxada gabekotzat du⁵¹. P. Constancio Vega-k egizaletasunik eza egozten dio Tajón-i⁵². Tajón-en estiloa, bere sentimenduen eraginpean eta euskaldunen eta bisigotuen arteko etengabeko guduaren eraginpean, gertakari lazgarriak, beldurgarriak kontatzen dituen etsaiarena da ezberri gabe. Baina, horregatik, Tajón-ek ez dio euskaldunak jentilak zirenik⁵³.

- *Amando Santuaren ustezko predikua.*

Amando Santuak euskaldunen artean egindako predikua jartzen dira, haiek, VII. mendean geroztik ere, jentil iraun zutela pentsatzeko argudio bakanetarikotzat. A. E. Mañaricua-k⁵⁴, gai horietan oso aditua den B. Krusch⁵⁵ eta ondorengo beste batzuegan⁵⁶ oinarrituz, argi handia dakarkigu auzi honetara ere.

Amando Santuaren bizitza idatzi zuenak, jainko faltsuak gurtzen zituzten euskaldunei kristau-erlijioa iragarri ziela santuak, adierazten du. *Vita Amandi*, Baudemundo santuaren ikasleak idatzia zelako ustea luzaroan egon zen onarturik. Baina 1910ean jadanik uste hori onartezina zela frogatu zuen B. Krusch-ek, egile hau ondorengo mendekoa delako. Areago oraindik: *Vita Amandi*-ren argitaratzaile honen iritziz, biografia honek ez du balio historikorik. Biografia hau sinesgarriagoztat jotzen duen E. Moreau berak ere hona zer esaten duen: euskaldunen historialariak, Pirinio aldeko euskaldunen erlijioaren zertzeladak zehatz jakiteko, ezin duela *Vita Amandi*-ra jo, eta hango kapitulu askok benetako gauzak barik elezaharretakoak, legendakoak, dakartzatela⁵⁷.

⁴⁸ P. FABRE, *Essai sur la chronologie de l'oeuvre de Saint Paulin de Nole*, Paris 1948; Idem, *Saint Paulin de Nole et l'amitié chrétienne*, Paris 1949, XIX - 396 or.; P. DE LABRIOLLE, *Une épisode de la fin du Paganisme. La correspondance d'Auson et de Paulin de Nole*, Paris 1910; M. VIGIL - A. BARBERO, *Sobre los orígenes sociales de la reconquista: cántabros y vascones desde fines del imperio romano hasta la invasión musulmana*, BRAH 156 (1965) 278-283; A. E. MAÑARICUA, *Fuentes literarias de época romana acerca del Pueblo Vasco*, ED 20 (1972) 221-229; J. GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona. I. Siglos IV-XIII*, Pamplona 1979, 36-39. or.; J. SAYAS, *Algunas consideraciones sobre la cristianización de los vascones*, PV 46 (1985) 51-55. Ik. ere: P. REINELT, *Studien über die Briefe des hl. Paulinus von Nola*, Breslau 1904; J. BROCHET, *Correspondance de Paulin de Nole et de Sulpice Severe*, Paris 1907; PAULY - WISSOWA, *Realencyclopädie der klassischen Altertumwissenschaft*, Stuttgart, 1893 II, 2562-2580; P. LANGLOIS, *Les poèmes chrétiens et le christianisme d'Ausone*, RPh 43 (1969) 39-58.

⁴⁹ *Cristianización del País Vasco. Orígenes y vías de penetración*, in: *Vizcaya en la Edad Media*, (CEH, San Sebastián, 1986) 39-48; Idem, *Introducción del Cristianismo en el País Vasco*, I SEHEPV (1981) 39-40.

⁵⁰ A. E. MAÑARICUA, *Cristianización del País Vasco. Orígenes y vías de penetración*, in: *Vizcaya en la Edad Media*, (CEH, San Sebastián 1986) 47.

⁵¹ S. Braulio eta Tajon-en eskutitzak ikus: PL. 80 (Migne).

⁵² A. C. VEGA, *Tajón de Zaragoza, una obra inédita*, LCD 155 (1943) 165-168.

⁵³ Eritzi kritikoa seriorik gabe, M. VIGIL - A. BARBERO-k (*Sobre los orígenes sociales de la reconquista: cántabros y vascones desde fines del imperio romano hasta la invasión musulmana*, BRAH 156 (1965) 311) euskaldunen herri basati hori ez zegoela kristauturik ateratzen du.

⁵⁴ *La cristianización del País Vasco*, in: *Historia del Pueblo Vasco*, 1. t., San Sebastián 1978, 56-58. or.; Idem, *Introducción del Cristianismo en el País Vasco*, I SEHEPV (1981) 38-39; Idem, *Santa María de Begoña en la historia espiritual de Vizcaya*, Bilbao 1950, 75-76.

⁵⁵ *Vita Amandi Episcopi*, MGH, SRM, 5, 395-485.

⁵⁶ E. LESNE, *Amand (Saint)*, DHGE 2 (1914) 942-945; J. BALTEAU, *Amand (Sant)*, DBF 2 (1936) 405-108; etab.; ik. ere: H. PLATELLE - D. MISONNE, *Amando*, BSa 1 (1961) 918-923.

⁵⁷ E. MOREAU, *Saint Armand*, Louvain 1927, 51-52, 208; Idem, *Étude critique sur la plus ancienne biographie de Saint Amand*, RHE 22 (1926) 27-67.

Harrigarria da historialari hain sonatuek, esaterako, Garcia Villada-k⁵⁸, J.M^a Lakarra-k⁵⁹, J. Caro Baroja-k⁶⁰, Barbero-Vigil-ek⁶¹ eta abarrek, gaur egun ere bai, *Vita Amandi* aipatuz eta horretan oinarrituz jarraitzea, biografia horri buruzko ikerketei ezikusi eginik⁶².

c.9. Haitzuloak eta kristautzea lehen mendeetan

Euskal Herriko hasierako edo lehen mendeetako kristautasuna aztertzeko, Euskal Herriko nahiz inguruetako, bereziki Arabako koben izaera, une historikoa eta esannahia kontutan hartzea komeni da. V. Espinosa-k, adibidez, IV. eta V. mendeetako aszetismoaren ezaugarritzat, Errioxan gertatzen zenez, kristauek baserri-giroko etxe, koba eta mendietan euren gordelekuak izatea jartzen du⁶³.

Koba hauei buruz, bereziki Arabakoei buruz, bi liburu interesgarri agertu dira oraintsu, 1988an, bata A. Azkaratek idatzia⁶⁴ eta bestea L. A. Monreal Jimenok idatzia⁶⁵, etabarrek⁶⁶.

Euskal Herriko koba batzuetan egiten zen bitzta aztertzen da, esaterako, Araban Bisigodoen garaian; baina A. E. Mañaricua-k ohartarazten digunez, koba bisigotiko hauen balorazio historiko-kronologikoa egiterakoan kontuz eta zuhurtasunez jokatu behar da; eta historialari berak dioenez, oraindik balio txikiagoa dute euskal lurraldean aurkitutako gauza bisigotikoak, gizarte eta histori erlaziorik ez baitute nahitaz adierazten⁶⁷.

⁵⁸ *Organización y fisonomía de la Iglesia Española, desde la caída del Imperio visigodo en 711, hasta la toma de Toledo, en 1085*, Madrid, 1935, 18-19; Idem, *Historia eclesiástica de España*. 3. t., Madrid 1932???, 270-273.

⁵⁹ *Vasconia medieval. Historia y filología*, San Sebastián 1957, 55; goi-mailako historialaria izanik, horrelako lanetan beharko litzatekeen kritika seriorik eza nabari zaio baskoien Zaragoza-ko setioa delako gaian ere.

⁶⁰ *San Amando y los vascones*, PV 32 (1971) 7-26.

⁶¹ *Sobre los orígenes sociales de la Reconquista*, Barcelona 1974, 94.

⁶² J. GOÑI GAZTAMBIDE, *Historia de los obispos de Pamplona. I. Siglos IV-XIII*. Pamplona, 1979, 54-56. Zuhurtasunez eta kontuz ari den arren, testua, oso "zalantzakotzat" du, baina ukatu ere ez du egiten. Ikus beste lan hau ere: J. M. MENJOLET, *Saint-Amand, Apôtre des Basques*, RG 10 (1869) 285-297, 333-348.

⁶³ V. ESPINOSA, *Calagvrris Ivlia*, Logroño 1984, 229-230.

⁶⁴ *Arqueología cristiana de la Antigüedad Tardía en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*. Vitoria-Gasteiz, 1988, XXI - 555; ikusi hau ere: *Kristautasunaren sarrera: Eztabaida historiografikoa zertan den*, in: [BATZUK]. *Euskal Herriaren historia*, III, Bilbao 1987, 23-50.

⁶⁵ *Eremitorios rupestres altomedievales (El alto valle del Ebro)*, Bilbao 1989, 430 or.; ikus ere: *Condicionamientos para el emplazamiento de los eremitorios rupestres del Alto Ebro*, in: [BATZUK], *25 años Facultad de Filosofía y Letras. II. Estudios de geografía e historia*, Deusto 1988, 285-290; Idem, *El visigotismo en los eremitorios rupestres de "Las Gobas" de Laño (Condado de Treviño)*, EHHBB 1 t., San Sebastián 1988, 367-379; Idem, *San Esteban de Viguera. Reflexiones en torno a una iglesia peculiar, San Millán de Suso. Aportaciones sobre las primeras etapas del cenobio emiliannense*, PV 49 (1988) 71-95; Idem, *Condicionamientos para el emplazamiento de los eremitorios rupestres del Alto Ebro*, in: [BATZUK], *25 años Facultad de Filosofía y Letras. II. Estudios de geografía e historia*, Deusto, 1988, 285-290.

⁶⁶ ABAD LEÓN, Felipe *Expansión de la vida eremítica y monástica en La Rioja*, ACr (1999) 285-312; ALONSO MARTÍNEZ, Ignacio – Juan B. OLARTE – José Ignacio LÓPEZ DE SILANES VALGAÑÓN – José Luis GARCÍA CUBILLAS, *Las cuevas de Herrera/San Felices ¿un eremitorio cristiano?*, ACr (2006) 685-712; ALONSO MARTÍNEZ, Ignacio, *Las cuevas de Herrera y su entorno*, ACr (2009) 23-152; EGEA VIVANCOS, Alejandro, *Monacato rupestre en La Rioja y en el alto Éufrates sirio. Puntos de contacto*, ACr (2006) 789-810; FAULIN GARCÍA, C. – José Luis CINCA MARTÍNEZ, *La cueva de "Los Llanos" (Arnedo, La Rioja)*, ACr (1999) 133-148; GONZÁLEZ BLANCO, Antonino, *La cueva de Herrera en la problemática del mundo rupestre: cultura, espíritu y espiritualidad*, ACr (2009) 189-244; GARCÍA CUBILLAS, Ignacio – Ramón LÓPEZ DOMECH, *La ermita rupestre de San Martín, en Castilseco (La Rioja)*, ACr (2006) 713-718; MORAL CONTRERAS, Tomás, *El eremitismo rupestre en la zona de Nájera*, IX CNA-Valladolid, 1965 (Zaragoza, 1966) 419-430; PASCUAL MAYORAL, María del Pilar – Pedro GARCÍA RUIZ – José Luis CINTA MARTÍNEZ – Hilario PASCUAL GONZÁLEZ, *La cueva de Páqueta: Castro Bilbibio (La Rioja). ¿Un oratorio rupestre?*, ACr (2006) 719-737; PASCUAL MAYORAL, María del Pilar - Antonino GONZÁLEZ BLANCO, *La covacha de Garona (Leza de Río Leza – La Rioja), ¿Iglesia-establecimiento monástico?*, ACr (1999) 279-284; PUERTAS TRICAS, Rafael, *El eremitismo rupestre en la zona de Nájera*, IX CNA-Valladolid, 1965 (Zaragoza, 1966) 419-428.; Idem, *Cuevas artificiales de época altomedieval en Nájera*, Berceo 29 (1974) 7-20; VELILLA CÓRDOBA, Salvador, *Cuevas y eremitorios en la Sonsierra riojana*, ACr (2006) 753-783.

⁶⁷ LATXAGA, *Iglesias rupestres visigóticas en Alava La Capadocia del País Vasco y el complejo rupestre más importante de Europa*, Bilbao 1976, 175 or.; A. E. MAÑARICUA, *La cristianización del País Vasco*, in: *Historia del Pueblo Vasco*, 1. t., San Sebastián 1978, 68-69; Idem, *Introducción del Cristianismo en el País Vasco*, I SEHEPV (1981) 40-41; LATXAGA, *¿Una piedra discoidal visigótica en Lizarraga (Navarra)?*, CEEN 9 (1977) 119-122; J. M. DE BARANDIARAN, *Excavaciones delante de unas grutas artificiales en "El Montico" de Charratu y en Sarracho (Izkiz-*

c.10. Aztarna arkeologikoak, epigrafikoak...

Orain, gain-gainetik bada ere, ikerketa arkeologiko, epigrafiko eta linguistikoen garrantzia azpimarratu nahi dugu, kristautzearen lehenengo garaiak finkatu eta adierazteko, datu historikoen bilaketan lagungarri edo erabakigarri gerta dakizkigun.

Azken urteotan geroago eta aztarna gehiago aurkitu izan da eta haien esannahia eta garrantzia eztabaidatzen eta aztertzen jarraitzen da. Hona hauetariko aurkikuntza batzuk: Morgako Meakaur-go 362ko Sempronia hilarria (epitafioa)⁶⁸, Tricio ondoko Santa Koloma edo Donemilliaga Kukulatik ekarritako sarkofagoa⁶⁹, Mañariko koba batean aurkitutako liturgi ontzitxo bisigotikoa⁷⁰, Memaia-ko Santa Marinako inskripzioa, A. Azkarateren iritziz IX. mendekoa⁷¹, apainduratzat gurutze-irudiak dituzten Berriatuko eta Foruko buztinezko objektuak⁷² eta abar⁷³. Batez ere garrantzitsuak dira VII. mende inguruko Faidoko graffitoak, baita Las Gobaskoak ere; eta baita epoka bereko Arrigorriagako, Finagako eta Arginako

Alava), BISS 10 (1966) 173-184; E. DE EGUREN, *Avance al estudio de algunas de las cuevas artificiales de Alava*, BRSEHN 18 (1918) 539-558; P. DE PALOL, *Los objetos visigodos de la Cueva de los Goros. (Huete Arriba - Alava)*, BISS 1 (1957) 73-84; A. LLANOS, *Algunas consideraciones sobre la cavidad de Solacueva y sus pinturas rupestres (Jócano-Alava)*, Munibe 13 (1961) 45-64; T. MORAL CONTRERAS, *El eremitismo rupestre en la zona de Nájera*, IX CNA-Valladolid, 1965 (Zaragoza 1966) 419-430; A. LLANOS - J. A. RUIZ - F. MURGA, *La cueva de la Iglesia y su yacimiento arqueológico. (Retes de Tudela - Alava)*, EAA 3 (1968) 73-82; I. AGUIRRE - J. M. ELEJALDE - J. A. MADINABEITIA, *Arte visigótico alavés. La ermita de San Julián, Araya, Zalduendo*, EMI (1975, 108.zk.) 30-32; L. G. VALDÉS, *El jarro hispanovisigodo de Mañaria (Vizcaya)*, AHAM 3 (1982) 145-154; N. ALZOLA, *El jarrito de ritual visigodo de la cueva de Iturrieta de Mañaria*, BRSVAP 14 (1958) 454-455.; M. LEKUONA, *Arte Visigotikoa Guipuzcoa'n?*, IG 3 (KB 24) 157-171; Idem, *¿Arte visigótico en Guipúzcoa? Astigarrabia*, IG 3 (KB 24) 147-152; Ig. BARANDIARAN, *Restos visigodos en la Cueva Foradada (Sarsa de Surta, Huesca)*, EEMCA 9 (1973) 9-48; J. A. GUTIÉRREZ GONZÁLEZ, *Habitats rupestres altomedievales en la Meseta Norte y Cordillera Cantábrica*, EH 4 (1982) 29-56.

⁶⁸ A. E. MAÑARICUA, *La inscripción de Sempronia (Morga)*, EV 3 (1972) 51-74; Idem, *La cristianización del País Vasco*, in: *Historia del Pueblo Vasco*, 1. t., San Sebastián 1978, 68; Idem, *Introducción del Cristianismo en el País Vasco*, I SEHEPV (1981) 34. or.; Idem, *Santa María de Begoña en la historia espiritual de Vizcaya*, Bilbao 1950, 70. or.; Kristau-hilarria den zalantzan jartzen du A. Mañaricua.

⁶⁹ C. GOVANTES, *Diccionario geográfico-histórico de España. Sección II. Comprende La Rioja o toda la provincia de Logroño y algunos pueblos de la de Burgos*, Madrid 1846. (Faksimil argitarapena: *Diccionario histórico-geográfico del País Vasco*, 3. t., Bilbao 1975) 174, 197; M^{re} E. SOLOVERA - T. GARABITO, *La religión indígena y romana en La Rioja de los berones*, HA 8 (1978) 194-195. Eztabaidatua.

⁷⁰ A. E. MAÑARICUA, *La cristianización del País Vasco*, in: *Historia del Pueblo Vasco*, 1. t., San Sebastián 1978, 69.; L. G. VALDÉS, *El jarro hispanovisigodo de Mañaria (Vizcaya)*, AHAM 3 (1982) 145-154; N. ALZOLA, *El jarrito de ritual visigodo de la cueva de Iturrieta de Mañaria*, BRSVAP 14 (1958) 454-455.

⁷¹ *Epigrafía cristiana en tierra del Duranguesado: La inscripción de Santa Marina de Memaia (Elorrio, Vizcaya)*, in: *Vizcaya en la Edad Media*, (CEH, San Sebastián 1986) 347-355; Idem, *Asentamientos medievales en Memaia (Elorrio, Vizcaya)*, Kobie-P 14 (1984) 555-557.

⁷² A. E. MAÑARICUA, *Santa María de Begoña en la historia espiritual de Vizcaya*, Bilbao 1950, 70; Idem, *La cristianización del País Vasco*, in: *Historia del Pueblo Vasco*, 1. t., San Sebastián 1978, 68; Idem, *Introducción del Cristianismo en el País Vasco*, I SEHEPV (1981) 34.

⁷³ J. A. OCHARAN, *Hallazgo de un Tremis visigodo en la Peña de Orduña (Vizcaya)*, Kobie 13 (1983) 85-93; A. LLANOS, *Descubrimiento fortuito en Guereñu (Alava)*, EAA 2 (1967) 218-219; H. SCHLUNCK, *Zu den frühchristlichen Sarkophagen aus der Bureba (Prov. Burgos)*, in: *Madrider Mitteilungen* 6 (1965) 139-166; 13 (1971) 72-86; Fr. SAENZ DE URTURI, *Cuevas artificiales en Alava. Guía para su visita*. Vitoria ²1985, 20 or.; J. GARIN, *Hebilla epigráfica cristiana del siglo V hallada en Ortigosa de Cameros (Logroño)*, BRAH 63 (1913) 105-106; J. BONA - J. SÁNCHEZ, *Las cerámicas grises hispano-visigodas del despoblado de los Pozos (Bureta). Algunos hallazgos metálicos de época visigoda*, CEB (1978, 1.zk.), 45-60; A. GONZÁLEZ BLANCO - V. ESPINOSA - J. M. SAENZ, *Epigrafía cristiana romano-visigoda en Arnedo (Logroño)*, (XV) CNAr (Lugo 1977) Zaragoza 1979, 1129-1142; F. ÁLVAREZ-OSSORIO, *Mosaico tombal paleo-cristiano descubierto en Alfaro (Logroño)*, ACFABA 3 (1935) 403-413; I. RODRÍGUEZ DE LAMA, *El cristianismo y los obispos riojanos en la época visigoda*; J.C. ESCO - A. CASTÁN, *Localización de nuevos yacimientos con restos hispano-visigodos en el Somontano Oscense*, XVII CNAz (Zaragoza, 1985) 933-942; J. G. MOYA, *El Arte en La Rioja. Edad Media*, Logroño 1982, 82 or.; A. ALONSO ÁVILA, *Visigodos y romanos de la provincia de La Rioja*, Berceo (1985) 7-31. Ik. A. E. HÜBNER, *Inscriptiones Hispaniae Christianae*; J. VIVES, *Inscriptiones cristianas de la España romana y visigoda*, Barcelona 1942, 299 or.; J. C. ELORZA, *De apigrafía cristiana alavesa*, EAA 4 (1970) 283-290; F. BARAIBAR, *Epigrafía armentense*, BRAH 49 (1906) 241-265; E. LE BLANT, *Inscriptions chrétiennes de la Gaule antérieures au VIII siècle*, 2 t., Paris 1856-1865; Idem, *Nouveau recueil des inscriptions chrétiennes de la Gaule antérieures au VIII siècle*, Paris 1892, XXIII - 483 or.; J. A. OCHARAN, *Hallazgo de un Tremis visigodo en la Peña de Orduña (Vizcaya)*, Kobie 13 (1983) 85-93.

hilarriak eta inskripzioak ere, A. Azkarateren eta I. Garcia Caminoren idazlanean agertzen direnez⁷⁴. Eta ezin dugu aipatu gabe utzi Dulantziko San Martin aztarnategia⁷⁵.

Kronologiari dagokionez, euskaran agertzen diren aztarnak zehaztea zailago da, hots, latinaren eragina euskaran, hain zuzen ere kristautasuna lehen mendeetan onartu zutelako⁷⁶.

d) Azken gogoetak

Hemen Euskal Herriaren kristautzeari dagozkion gauza edo gai batzuk zirriboratu ditut; izatez, puntu orokorrak dira; hauei bibliografia ugaria gehitu diet... Eta berriro azpimarratu nahi dut, azken hamarkadetan, Euskal Herriaren kristautzeari buruzko datuei dagokienez, arkeologiaren aldeak hartu duela aurrea, ongi merezita hartu ere, eta orain dela 50-60 urte pentsaezinak ziren aurrerapenak egin direla... Eta, denboraren joan-etorrian, datu arkeologiko gehiago agertuko direlako esperantza dugu, Euskal Herriaren kristautzeaz pixka bat argi gehiago egingo dutenak. Arkeologiazko jarduera ezinbestekoa izango da, kristau-presentziaren jaiotza eta garapena Euskal Herriko lurraldean eta beronen inguruan hobeto ezagutzeko.

Iruña-Veleia: kasu berezia beraren handitasun material eta esanahiगतिक.

Iruña-Veleiako aurkikuntzez izandako albiste zirraragarrien ondoren eta aurkikuntza haietako batzuk faltsuak izan daitezkeelako iritziगतिक interesa pixka bat hoztu ondoren, unibertsitateko arduradun batzuen eta probintziako agintarien aldetik erabaki ulertezinak harturik... (gerta daitezkeen aurkikuntza gehiagoren lekua suntsitzeraino...), horren guztiaren ondoren ere, hainbat historialarik eta arkeologok ikertzen jarraitzen dute, gero eta legezketasun handiagoaz aurkikuntzen egiazketasuna bultzatzen eta berresten...

Zientzilari eta arkeologoek askatasuna behar dute beren bilaketa historikoan. Lan etengabe eta zientziatzkoak egin dezake argi oraingo egoeran..., Antonio Rodríguez Colmenerok egin duenez, Veleia erromatarreko grafitoak, testuak eta diseinuak aztertuz, testu batzuk hobeto irakurriz, deszifratuz etab.

Eta kristautasunari dagokionez, aurkikuntzak (egiazkotzat jotzen baditugu) garrantzi handikoak dira; gainera, kristautasun-gaiaren inguruko datuak mende desberdinetakoak dira, eta horrek indartsuago adierazten du garrantzia kristautzearen uneei dagokienez, Idoia Filloy-ren 2016ko maiatzeko artikuluan ageri denez.

⁷⁴ Ik.: Agustín AZKARATE GARAI-OLAUN - Iñaki GARCIA CAMINO, *Estelas e inscripciones medievales del País Vasco (Siglos VI-XI). I. País Vasco Occidental...*, Bilbao 1996, 348 or.

⁷⁵ Ik. Arkeoikuska 2011, 33-57.

⁷⁶ Ik. G. ROHLFS, *La influencia latina en la lengua y cultura vascas*, RIEV 24 (1933) 323-348; SEGURA MUNGUÍA, Santiago - ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel, *Del Latín al Euskara. Latinetik Euskarara*. Bilbao, 1996, 292 or.; ORPUSTAN, Jean-Baptiste, *La langue basque au moyen âge (IX^e-XV^e siècles)*. (Editions Izpegi, 1999) 358 or., etab.